

**Iñaki Múgica Flores Lasarte-Oriako Udaleko Alkatetzaren kabineteburuak egindako txostena.**

GAIA:	Zabor-kontainerrei buruzko herri-kontsultaren baldintzak lantzeko kontsulta-prozesuari buruzko txostena.
TXOSTENAREN DATA:	2020ko otsailaren 4
TXOSTEN zk.:	01/2020

Administrazio Publikoen Prozedura Administratibo Komunaren 39/2015 Legeak herritarrek lege-mailako arauak eta erregelamenduak egiteko prozeduran parte hartzeari buruzko 133 artikuluan ezartzen duenez, legearen edo erregelamenduaren proiektua edo aurreproiektua egin baino lehen kontsulta publiko bat egin beharko da.

Lasarte-Oriako Udalaren Hiritarren Partehartzeko departamentuak eskatuta, eta zabor-kontainerrei buruzko herri-kontsultaren baldintzak prozesua abian jartzeko beharra ikusita, prozesu hau irekitzeari ekin zaio.

Horretarako, udalaren webgunean parte hartzeko prozesu bat ireki zen, urtarrilaren 30ra arteko epea emanez herritarrek beren proposamenak udalari helarazteko, honela egin zezaketelarik:

- Idatziz, Udaleko Erregistroan idatzi bat aurkeztuz.
- Bide telematikoaz, Hiritarren Parte-hartzearen atalaren bitartez.
- E-maila bidaliz helbide elektronikoko honetara: partehartzea@lasarte-oria.eus.

Irekitze hori prentsari komunikatu zitzaion, 2019. abenduaren 3an bidalitako ohar baten bidez, Lasarte-Oriako herritar guztiengana hobeto zabaltzeko xedez.

Proposamenak aurkezteko epea amaituta egiaztatu ahal izan dugunez, **sei ekarpen jaso dira** horretarako irekitako bideetatik, eta hori Hiritarren Partehartzeko departamentuari jakinarazten zaio, baldintzak lantzeko eta onesteko prozesua jarrai dezan.

Iñaki Múgica Flores
Alkatetzako kabinetea